

Giza eskubideen defentsari eraso

Urtarrilaren 10ean milaka herritarrek Bilboko udaletxetik La Casillarrainoko bi kilometroak argitxoaz bete zituzten, “Now Euskal Herrira!” lelo nagusiaren pean. Sare elkarteak herritar oro giza eskubideen defentsan eta dispartzioaren aurka lan egitera deitu zuen. Astelehen goizean

Guardia Zibilak euskal presoan 12 abokatu eta Herrira elkarteko 4 kide atxilotu zituen. Ondorioetako bat izan zen ahozko epaiketa zuten ezker abertzaleko 35 kide defentsarik gabe uztea (epaiketa bertan behera geratu zen).

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Dani Blanco



2014KO URTARRILAREN 8A. Euskal Herrian dena da prest urtero urtarrilean euskal presoan eskubideen alde egiten den manifestaziorako, baina oraingoan ere ez da Madrilen esku-hartzerik faltako eta EPPK-ko zortzi mintzakide atxilotu ditu. Zalaparta itzela izan da eta, gainera, Auzitegi Nazionalak manifestazioa debekatu du. Debekua medio EAJk ere manifestazioarekin bat egin du eta mobilizazioa Euskal Herrian izan den handienetakoa izan da. Jake esan



Guardia Zibilak LABeko egoitza ere miatu zuen urtarrilaren 12an.

zuen Guardia Zibilak operazioaren izenarekin.

2015eko urtarrilaren 12a. Euskal Herrian euskal presoan eskubideen aldeko manifestazioa egin da eta bi egunera Guardia Zibilak euskal presoan 12 abokatu eta Herrirako 4 kide atxilotu ditu: ETako kide izatea, iruzurra eta diru zuriketa leporatzen zaie. Mate esan du Guardia Zibilak orain. Baita El Mundoko gaurko tituluak ere: “ETako abokatuaren kolektibo osoa atxilotua”.



Senideak, herritarrak eta astez aste espetxe barreiatuetara eramaten dituzten Mieltxin furgonetak izan ziren manifestazioaren protagonista.

Hori da helburua, antza: euskal presoaren defentsan edo bitartekaritzan dabilzan abokatu eta herritar guztiak atxilotzea eta haiekiko solaskidetzaz oztopatzea. Handik edo hemendik bake prozesu ia ikusezin hori elikatu dezakeen edozer oztopatzea. Denak dira etakide, “dena da ETA”. Eta Espainiako Gobernuan dena mendekua, euskal gizarteak behin eta berriz aldarrikatzen duen bake eta bizikidetzaren aurka dena oztopo.

Sakonean, PPren Gobernuak argi uzten du euskal gizarteak pentsatzen duena berdin zaiola; eta berdin Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrak eta gainerako euskal insti-

tuzioek esaten dutena. Gordin esanda, pixa egiten die guztxi buru gainean. Eta gainera trufa doinuz: iaz manifestazioaren aurretik eta aurten ostean, “berdin zaigu”. Gaitza da mendekuz aparte beste-lako irakurketarik egitea, garai batean euskal auziak ematen baitziren errentarik Espainian, baina gaur egun hori ere ez. Hala ere, antza, eta are gehiago Parisko igandeko manifestazioaren ondoren, hemen ere terroristek ez dutela babeslekurik erakustea beti da errentagarri.

Klabea? Euskal gizartearen egiazko bake prozesu baten alde egin nahi dutenek behingoz bat egitea eta,

desberdintasunak desberdintasun, bakea eta bizikidetzaz serio eraikitzen hastea. Ahaztu une batez Madril eta ekin hemen, bestela Madril ere ez baita mugituko. EH Bildutik eta PSEraino –edo inkestak lehen lerroan jartzen duten Podemoseraino– eta tartean aktiboaren behar luketenak, EAJ eta Eusko Jaurlaritzak. PPk nahiago du Euskal Herria nahasian, horrek dena oztopatzen baitu, baina euskal gizarteak badu garai berri bat bizitzeko esku-bidea eta nahia. Ez da beste barik zerutik jausiko, euskal herritar eta instituzioei dagokie haren alde borrokatzea.

2016ko urtarrila... ■